

**KULTUR GUNEAREN 9. BILERA****BERTARATUAK:**

KULTURA TEKNIKARIA	BORTZIRIETAKO GORRIAK
ARRANO ELKARTEA	ERRALDOI ETA BURUHAUNDIEN KONPARTSA
BETI-GAZTE (KULTURA)	MUSIKA ESKOLA
OTXOGORRIENEA GURASO ELKARTEA	LESAKAKO MUSIKA BANDA
BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLA	TRIKITIXA TALDEA
MAIRU ANTZERKI TAILERRA	TXISTULARI TALDEA
SAN FERMIN JUBILATU ELKARTEA	GEROA BAI UDAL TALDEA
TANTIRUMAIRU EUSKAL FOLKLORE TALDEA	EH BILDU UDAL TALDEA
LESAKAKO ABESBATZA	

1. Aitzineko aktaren onarpena egin da. *Sorginxulo* edo *Sorgintxulo* idatzi beharko genukeen duda suertatu zen 8. bileran eta *ikerketa ttiki* bat egin ondotik SORGINXULO idaztea proposatu eta onartu da.
2. Liburu Xuria: Bertso Eskolaren eta Dantza taldearen adibideak ikusi dutugu denon artean. Talde gehienek bidalitako eskema jarraitu dute. Zalantza suertatu da 1. edo 3. pertsonan idatzi behar den testua, eta gehiengoak 1. pertsonan idaztea ongi ikusi du. Testuak bidaltzeko epea jarri dugu eta honela, apirilaren 30erako idaztea adostu dugu.
3. Harriondoako ekitaldiak: Momentuz eginen direnak aurkeztu dira, hala nola, *Zaldi Urdina* (martxoaren 7an) eta *Concavo Convexo* (urriaren 17an). Aipatu, bi ekitaldi hauek Nafarroako Antzoki Sarearen baitan daudela eta diru-laguntza emanen digutela herrira ekartzeagatik. Bertzalde, Haur Kantarien Txapelketa (martxoak 14) eta Jabier Petrirenaren antzerkia (maiatzaren 30ean).
4. Harriondoako aurrekontua: Berriz ere azaldu da zein den. 30.000 euroko aurrekontua Harriondoan eginen direnak antolatzeke eta bertze 10.000 euro bitan banatuak: a) 5.000 euro herriko eragileek Txokobikon antolatzen dituzten behar teknikoak ordaintzeko izanen dira eta b) 5.000 euro uda partean, San Ferminen ondotik iraila bitarte karrikan eginen diren ekitaldi/zikloa antolatzeke.

Hori horrela izanik, bilgunean proposamenak egiteko gonbidapena zabaldu da. Udalera ailegatzen direnak bilgunera ekartzea ere proposatu da, denon artean zer ekarri adosteko. Bertzalde, aipatu uda ziklorako ere proposamenak egiteko aukera badela, maiatzerako itxi nahi da egitaraua, beraz proposamenak egiteko momentua da, baita zikloari jarriko diogun izena adostekoa ere.

5. Kezkak eta beharrak:

-Diru-laguntzen oinarriak prest daude eta astelehenean, otsailaren 3an bidaliko dira. Eskatzeko epe-muga otsailaren 21a izanen da.

-Hilabeteroko kultura agendan bilgunearen bilerak iragarri behar ote diren aipatu da. Gehiengoak bertan ez azaltzea ikusten du.

-Bilgunearen logotipoaren sortzea lehiaketa bidez egingen da eta Udala oinarriak eta bandoa prestatzen ari da. Saria, urte bateko Harriondoan egingen diren kultur ekitaldiearako bonoa izanen da. Aurkezten diren lanekin, bilgunean bozketa eginez aukeratuko dugu aipatu irudia.

Hurrengo bilera 2020ko martxoaren 7an, goizeko 09:30ean egingen dugu Harriondoako Zumarra artoan eta bilerak ordu eta erdiko iraupena izanen du.